

LEHENENGO ARIKETA: B ATALA

IKASTETXE BATEN MANTENTZE-LANEN ARTEAN, ELEKTRIZITATEAREKIN

LOTUTAKO JARDUERA BATZUK EGIN BEHAR DIRA:

1. Ikasgela batean lau fluoreszente-luminaria ditugu, 1x36w-koak, ageriko hodikoak, eta pizte bakarrekoak. Horietako bat ez da pizten. ZEIN DA ARAZOA ZEHAZTEKO ETA KONPONTZEKO JARDUERA-ORDENA ZUZENA?

- A. Erreaktantzia aldatzea; oraindik funtzionatzen ez badu, pitzarazgailua aldatzea; eta funtzionatu gabe jarraitzen badu, arazoa hodi fluoreszentean egongo da edo ez da korronterik egongo.
- B. Hodia aldatzea; oraindik funtzionatzen ez badu, pitzarazgailua aldatzea; eta funtzionatu gabe jarraitzen badu, arazoa erreaktantzian egongo da edo ez da korronterik egongo.
- C. Etengailua aztertzea, eta hura ingo badago, hodia aldatzea. Oraindik pizten ez bada, pitzarazgailua aldatzea.
- D. Koadroaren etengailu magentotermikoa aztertzea, eta, hura ongi badago, hodia aldatzea. Oraindik pizten ez bada, pitzarazgailua aldatzea.

2. Hodi fluoreszentea aldatzeko unean, kendu dugun hodian hau irakurri dugu: 36w/840. ZER DEFINITZEN DU 840 ZENBAKIAK?

- A. Hodiaren luzera.
- B. Ematen duen argiaren kolore-tonua.
- C. Ematen duen argiaren erreprodukzio kromatikoa.
- D. B eta C erantzunak zuzenak dira.

3. Ikasgela batean entxufe-oin bat aldatu behar dugu. Paretatik askatzen dugunean, kutxara hiru kable iristen direla ikusi dugu (urdina / beltza / hori-berdea). Oinarri berriak hiru borneko konexioa du, bakoitza bere sinboloarekin ($\frac{\perp}{\perp}$ / N / F). **ZER KABLE KONEKTATU BEHAR DA BORNE BAKOITZEAN?**

- A. $\frac{\perp}{\perp}$ urdina / N hori-berdea / F beltza.
- B. $\frac{\perp}{\perp}$ beltza / N urdina / F hori-berdea.
- C. $\frac{\perp}{\perp}$ beltza / N hori-berdea / F urdina.
- D. $\frac{\perp}{\perp}$ hori-berdea / N urdina / F beltza.

4. Ikasgela batean etengailu indibidual baten oinarri osoa ordeztu behar da. Paretan dagoena askatzen dugunean, ikusten dugu hiru kable iristen direla kutxara eta haren hiru borneak konektatzen dituztela. **ZERI DAGOZKIO KABLE HORIEK?**

- A. Fase-sarrera / fase-irteera / lurra.
- B. Fase-sarrera / fase-irteera / kommutazioa.
- C. Neutro-sarrera / neutro-irteera / lurra.
- D. Fase-sarrera / neutro-irteera / lurra.

5. Lau konexio-borne dituen etengailu indibidualeko oinarri bat dugu. **ZER ETENGAILU MOTA DA?**

- A. Soila.
- B. Kommutatua.
- C. Gurutzatzekoa.
- D. Diferentziala.

ERA BEREAN, AROTZERIA-LANAK EGIN BEHAR DIRA, ETA HAINBAT KONTU

PLANTEATZEN ZAIZKIGU:

6. Zurezko ate baten orriak lurra ukitzen du, eta beheko ertzetik higatzea erabaki da, hori saihesteko. Horretarako, atea atera da, lan egin ahal izateko. ZER

MAKINA DA EGOKIENA LAN HORI EGITEKO?

- A. Disko-makina, zorrozteko diskoarekin.
- B. Zurerako inguratzeko zerra.
- C. Eskuila elektrikoa.
- D. Fresatzeko makina.

7. Ate zabukari batek eskuinaldeko edo ezker aldeko irekiera izan dezake, eta datu hori zehaztu behar dugu material batzuk eskatzeko. NOLA ZEHAZTEN DA

IREKIERA HORI?


- A. Bisagra orriaren eskuinean edo ezkerrean dagoen begiratu behar da.
- B. Heldulekua orriaren eskuinean edo ezkerrean dagoen begiratu behar da.
- C. Orriaren irekiera-noranzkoa da, bultzatzen den posiziotik begiratuta.
- D. Orriaren irekiera-noranzkoa da, atetik «tiratzen» den posiziotik begiratuta.

8. Sarraila-zilindro europar bat dugu (udare formakoa) 30/40 numerazioa duena. ZER ESAN NAHI DU NUMERAZIO HORREK?

- A. Elementuaren luzera osoa 40 mm-koa dela eta altuera, 30 mm-koa.
- B. Elementuaren luzera osoa 30 mm-koa dela eta altuera, 40 mm-koa.
- C. Espekaren erditik sarraila-zilindroaren mutur batera 30 mm daudela eta beste muturrera, 40 mm.
- D. Zati zirkularren diametroa 30 mm-koa dela eta gainerako elementuaren altuera, 40 mm-koa.

9. ZER DEFINIZIO DA EGOKIA IRUDI HORREN GILTZARAKO?

- A. Segurtasunekoa.
- B. Zerrakoa.
- C. Paletakoa.
- D. Erantzun guztiak egokiak dira.



ERA BEREAN, ITURGINTZARI LOTUTAKO MANTENTZE-LANAK EGIN BEHAR DIRA, ETA HAINBAT KONTU PLANTEATZEN ZAIZKIGU:

10. Konketa bateko txorrotaren tenkagailua aldatu behar dugu. ESKUAIRA-GILTZAN KONEKTATZEN DEN TENKAGAILUAREN KONEXIO-HARIA IZANGO DA:

- A. 1/2-ko arra”
- B. 1/2-ko emea”
- C. 3/8-ko arra”
- D. 3/8-ko emea”

11. Gurutzaketa-giltza duen txorrota bat biratzean ez da ura ateratzen. NOLA JARDUN BEHAR DUZU ARAZOA ZEIN DEN JAKITEKO?

- A. Egiaztatu ea zapata trabatu den txorrotaren oinaren kontra.
- B. Egiaztatu ea gurutzeta biratzean ardatza mugitzen den.
- C. Hautsi txorrotaren juntura eta aldatu.
- D. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

12. Neguan berogailuak martxan jarri ondoren, erradiadoreak purgatu behar dira. ZERTARAKO?

- A. Zirkuituaren presioa berdintzeko.
- B. Purgadoreak martxan daudela egiaztatzeko.
- C. Zirkuituan dagoen airea ateratzeko.
- D. Erradiadoreetan dagoen gehiegizko presioa jaisteko.

13. ZER BALDINTZATAN EGIN BEHAR DA PURGATZE HORI?

- A. Zirkuitua bero dagoenean eta haren presioa zero denean.
- B. Zirkuitua hotz dagoenean eta haren presioa zero denean.
- C. Zirkuitua bero dagoenean eta funtzionamendurako presioa egokia denean.
- D. Zirkuitua hotz dagoenean eta funtzionamendurako presioa egokia denean.

IKASTETXE BATEKO JANTOKIKO SABAIAK UR-ISURI BAT IZAN DA GOIKO SOLAIRUTIK, ETA, ONDORIOZ, HEZETASUNA AGERTU, ETA ZARPIATUA ZINTZILIK GERATU DA; BERAZ, KONPONDU EGIN BEHAR DUGU:

14. Zarpiatu egingo dugu luzitu aurretik. ADIERAZI JARRAIAN AGERTZEN DIREN ENUNTZIATUEN ARTETIK ZEINEK EZ DION ERREFERENTZIA EGITEN ZARPIATZEARI:

- A. Estaldura jarraitu bat da, zementu- morteroz, kare-morteroz edo mortero mistoz egin daitekeena.
- B. Lehortu bitartean ureztatu behar da, ur-isuriak eragindako pitzadurak saihesteko.
- C. Marmol fin birrinduz eta ikuziz egindako agregakina gehitzen zaio.
- D. Bi modutan egin daiteke: berdingidak jarrita edo berdingidak jarri gabe.

15. ZARPIATZEEN MORTEROAK EZIN DU IZAN:

- A. Zementuzkoa.
- B. Karezkoa.
- C. Igeltsuzkoa.
- D. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

16. Sabaia igeltsuz luzitzeko prozedurari lotuta, ZER BAI EZTAPEN DA OKERRA?

- A. Ez da eteten luzitua egitura-junturetan.
- B. Oratu ondoren gehitzen da ura.
- C. Haren lodiera ez da izango 3 mm-tik beherakoa edo 5 mm-tik gorakoa.
- D. Luzituaren lautasunak 3 mm-tik beherako aldakuntza izango du, metro 1eko erregelarekin.

17. Lanak egin bitartean, burdinazko erradiadore baten pintura hondatu da; beraz, orain duen pintura lixatu ondoren, berriro pintatu beharko da. ZER PINTURA IZANGO DA EGOKIENA?

- A. Pintura plastikoa, itsaspen-inprimazio baten gainean.
- B. Tenple pintura, itsaspen-inprimazio baten gainean.
- C. Esmaltea.
- D. Klorokautxuzko pintura.

18. Pintatzen dugunean, aire-poltsa batzuk agertu dira pinturaren azpian, ZERGATIK?

- A. Eman dugun pintura airearen eraginpean egon delako eta hura lehortzeko prozesua hasi delako.
- B. Ematen ari den pintura ez delako egokia euskarri horretarako.
- C. Pintura emateko garaian pintzelkada gehiegi ematen ari direlako.
- D. Brotxa pasatzen den bakoitzean oso pintura gutxi ematen ari delako.

19. JARRAIAN AIPATUTAKO ARRAZOIEN ARTEAN, BATEK EZ DITU ITSASPEN-ARAZOAK EMATEN:

- A. Garbi ez dauden edo argizari edo silikonekin garbitu diren gainazalen gainean margotzea.
- B. Gaizki dauden pinturen gainean edo kare-, kola- edo tenple-pinturen gainean pintatzea.
- C. Hezetasun handia edo ur-iragazpenak dituzten gainazalen gainean pintatzea.
- D. Ile luzeko arrabilekin pintatzea.

20. ZEIN DA PINTURAREN PITZADURARI AURREA HARTZEKO MODURIK ONENA?

- A. Material bakoitzerako pintura egokiarekin margotzea.
- B. Hezetasun handiko giro batean margotzea, pintura hobetu irristatu dadin.
- C. Gainazala hezeen gainean pintatzea, hezetasuna lagungarria baita pintura emateko.
- D. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.